APLIKAZIOAREN ETA KODE SINADURAREN ZIURTAGIRIRAKO BERARIAZKO DOKUMENTAZIOA

Beato Tomás de Zumárraga
71 - 1ª Planta
01008
Vitoria - Gasteiz

www.izenpe.com
info@izenpe.com
Tel.: 945 017 490

1 Sarrera

Dokumentu honek *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe, SA* (aurrerantzean IZENPE) enpresak jaulkitako Aplikazioaren eta Kode Sinaduraren ziurtagirien *berariazko dokumentazioa* jasotzen du.

Dokumentu honen helburua *IZENPEren Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* mota horretako ziurtagirietarako, oro har, definitutakoa zehaztu eta osatzea da.

1.1 Ziurtagirien deskribapena

Ziurtagiriak desberdinak dira:

- *Aplikazioa,*
  Informatika-aplikazio batek egiazkotasuna eta osotasuna ziurtatzeko erabiltzen duen ziurtagiria da.
- *Kode-sinadura,*
  Software-aplikazio baten egilearen nortasuna eta edukiaren osotasuna bermatzen duen ziurtagiria da, ziurtagiri hori kode-sinadurarako erabiltzen baita.

1.2 Identifikazioa

Ziurtagiri horiek identifikatu ahal izateko, IZENPEk honako objektu-identifikatzaile hau (OID) esleitu die.

ZIURTAGIRIA	OID
Aplikazioaren ziurtagiria	1.3.6.1.4.1.14777.1.2.2
Kode-sinaduraren ziurtagiria	1.3.6.1.4.1.14777. 1.3.1

1.3 Komunitatea eta erabilera-esparrua

Eskatzailetzat hartuko da,

- *Aplikazioaren* ziurtagiriari dagokionez, aplikazioaren arduradun teknikoa.
- *Kode-sinaduraren* ziurtagiriari dagokionez, antolakundearen arduraduna.

2 Eskakizun operatiboak

2.1 Ziurtagiria eskatzea

Ziurtagiria **bideratzea** eta eskatzailearen **identitatea ziurtatzea,**

Onartu gabekoak direla kontuan izanik, ziurtagiri horiek jaulkitzeko ez da eskatzailea IZENPEren aurrean egiaztatu behar.
Ziurtagiria ez da bertaratuta bideratuko, IZENPEri igorriko zaio,

1. Jaulkitzeko eskaera sinatua.
2. Indarrean dagoen honako dokumentazio hau:
   a) NAN, pasaporte edo gida-baimena, estatuko hiritarra bada.
   b) Atzerriko hiritarren kasuan:
      I. Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Estatutakoek, aurkeztuko dute,
         - Nortasun Agiri Nazionala edo haien herrialdeko baliokidea edo pasaportea.
         - Europar Batasuneko Kideen Hiritarren Erregistroak igorritako ziurtagiria.
      II. Europar Batasunaz kanpoko atzerritarra bada, Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia eta indarrean dagoen pasaportea eskatu ahal izango da.

Entitate eskatzailea ziurtatuko duen dokumentazioa.

Eskatzaileak, *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeraren* bidez, eskaeran jasoarazi diren datuen egiazkotasuna eta zuzentasuna egiaztatuko du.

2.2 Ziurtagiria jaulkitzea eta ematea

Eskaera sinatua eta gako publikoa eman ondoren, ziurtagiria jaulkiko du IZENPEk.

Ziurtagiriak desberdinak dira:

- *Aplikazioarena*
  Aurrez, eskaera-formularioarekin batera, eskatzaileak gako-parea sortu beharko du zerbitzarian bertan, eta IZENPEri eman beharko dio gako publikoa.
  IZENPEk *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako helbide elektronikoan emango du ziurtagiria.

- *Kode-sinadurarena*
  IZENPEk ziurtagiria, PINa eta hori desblokeatzeko kodea (PUKa) emango dizkio eskatzaileari.

Eskatzaileak sinatuta itzuli beharko dio IZENPEri *Entrega eta Onarpen Orria.*

2.3 Ziurtagiriak ezeztatzea

Honako hauek **eska dezakete** ziurtagiri bat **ezeztatzea:**

- Harpidedunak,

  Entitate hartzailearen legezko ordezkariak, langileen arduradunak edo aurrekoetako edozeinek baimendutako hirugarren batek dute ziurtagiria ezeztatzea eskatzeko baimena.

- Eskatzaileak
- IZENPEk.

  IZENPEko administratzaileek eta erregistro-entitateek baimena dute azken entitateko harpidedun-ziurtagirien ezeztapena eskatzeko.

Prozedura

Ezeztatzea eskatzen duen pertsonak *ziurtagiria ezeztatzeko eskaeraren* inprimakia bete eta IZENPEren aurrean aurkeztu beharko du izapideak egin ditzan, ziurtagiriaren eskaerarako aurreikusitako bide berak erabiliz.

Erregistro-entitateak eskatzailearen nortasuna egiaztatzeko akta egingo du *ziurtagiria ezeztatzeko eskaeraren* bidez.

Ezeztatzeko arrazoiak

Ziurtapen Praktiken Deklarazioan kontsulta daitezke (www.izenpe.com).

2.4 Ziurtagiriak berritzea

Ziurtagiria berritzeko (ezeztatu egin delako edo iraungi egin delako), harpidedunak ziurtagiri berria eskatu beharko du. Ziurtagiriak jaulkitzeko finkatutako prozedurari jarraitu beharko dio.

3 Aldaketaren kudeaketa

Dokumentu honetan egiten diren aldaketak IZENPEren Segurtasun Batzordeak onetsiko ditu.

Aldaketa horiek ziurtagiri bakoitzaren berariazko dokumentazioa eguneratzeko dokumentuan jasoko dira, eta IZENPEk bermatuko du dokumentu hori eguneratuta egongo dela.

Berariazko dokumentazioaren bertsio eguneratuak honako helbide honetan kontsultatu ahal izango dira: www.izenpe.com.

4 Ziurtagirien profilak eta ezeztatutako ziurtagirien zerrendaren profilak

4.1 Aplikazioaren ziurtagiriaren profila

Erabilerak: Sinadura, SSL

Esparrua/luzapena	Aukerakoa / kritikoa	Edukia
version		3 bertsioa
serialNumber		Zenbaki sekuentzial bakarra
signature		sha-1WithRSAEncryption
issuer		CA jaulkitzailearen ziurtagiriaren subject eremuaren berdina
Validity		3 urte
Subject		
ST		Probintzia
L		Udalerria
EA		Helbide elektronikoa
CN		Aplikazioaren izena
OU		Saila
O		Entitatearen izena
C		ES
subjectPublicKeyInfo		RSA 1024 bit gutxienez
extensions		
issuerAltName		CA jaulkitzailearen ziurtagiriaren subjectAltName eremuaren luzapen bera
subjectAltName	Aukerakoa	Eskaeraren subjectAltName luzapen bera, bertan badago
extendedKeyUsage		clientAuth, emailProtection
netscapeCertType		SSL_Client, SMIME_Client
subjectKeyIdentifier		Gako publikoaren identifikatzailea
authorityKeyIdentifier		keyIdentifier eremua soilik txertatu
certificatePolicies		
policyIdentifier		1.3.6.1.4.1.14777.1.2.2 (1.3.6.1.4.1.14777.101.2.2 garatzen)
cpsURI		http://www.izenpe.com/cps
userNotice		Bermeen mugak ezagutzeko www.izenpe.com Ziurtagirian konfiantza izan aurretik kontratua irakurri.
cRLDistributionPoints		http://crl.izenpe.com/cgi-bin/crlinterna2
authorityInfoAccess		ocsp http://ocsp.izenpe.com:8094
keyUsage	Kritikoa	digitalSignature, nonRepudiation, keyEncipherment

4.2 Kode-sinaduaren ziurtagiriaren profila

Esparrua/luzapena	Aukerakoa / kritikoa	Edukia
version		3 bertsioa
serialNumber		Zenbaki sekuentzial bakarra
signature		sha-1WithRSAEncryption
issuer		CA jaulkitzailearen ziurtagiriaren subject eremuaren berdina
Validity		3 urte
Subject		
ST	Aukerakoa	Probintzia
L	Aukerakoa	Udalerria
EA		Helbide elektronikoa
CN		Entitatearen/aplikazioaren izena
OU	Aukerakoa	Saila
O		Entitatearen izena
C		ES
subjectPublicKeyInfo		RSA 1024 bit gutxienez
extensions		
issuerAltName		CA jaulkitzailearen ziurtagiriaren subjectAltName eremuaren luzapen bera
subjectAltName	Aukerakoa	Eskaeraren subjectAltName luzapen bera, bertan badago
extendedKeyUsage		codeSigning
netscapeCertType		ObjectSigning
subjectKeyIdentifier		Gako publikoaren identifikatzailea
authorityKeyIdentifier		keyIdentifier eremua soilik txertatu
certificatePolicies		
policyIdentifier		1.3.6.1.4.1.14777.1.3.1 (1.3.6.1.4.1.14777.101.3.1 garatzen)
cpsURI		http://www.izenpe.com/rpascafirmacod
userNotice		Bermeen mugak ezagutzeko www.izenpe.com Ziurtagirian konfiantza izan aurretik kontratua irakurri.
cRLDistributionPoints		http://crl.izenpe.com/cgi-bin/crlinterna2
authorityInfoAccess		ocsp http://ocsp.izenpe.com:8094
keyUsage	Kritikoa	digitalSignature, nonRepudiation